

Unamuno: guretasunaren emaitza

Eguna, 1987-01.

Unamunok euskarekiko zuen pentsabidea salatu izan dut behin baino gehiagotan.

Eta Euskal Herriaz, galdetzen didate, zer diozu?

Unamunok bere jaioterria maite zuen, dudarik gabe. Honi begira, Don Migel ikusteko modu asko daude. Lehen idatzi zuen eleberrri edo nobela izan daiteke neurri on bat. Hau ez zen gero idatziko zituen "nivola" haien ahaide, sakonagoa eta benetakoa baizik. Hemen dago Bilbo, pentsalari eta idazlearen sorlekuaz gainera. Euskal Herriko hiribururik handiena, industrializatuena eta alderdi askotatik kementsuena, eta hemen sentitu zuen borroka bizian gure herriak XIX. mendean bi gerraterako indarra izan zuen euskal karlismoa; hemengoa zen bere kidako Sabin Arana Goiri, abertzaletasun berria eraikitzeko haren sorburuan dagoen ideologia erroetatik atera, Gernikako Arbolaren zentzu zaharra irauli eta lur berri eta ongarri desberdinekin *Euzkadiratzen* duena.

Zerbait esan nahiko du, bestalde, Don Migelek nobela honen hasieran jarri zion lema antzeko zerbaitek: "*Hau ez da nobela bat; herri bat da*".

Egia da, lehen aldiko Unamuno dela hau. Hogeita bat urte zituela, 1885ean hasi zen idazten (1897rarte argitaratu ez bazioten ere!); oraindik Euskal Herriari gorputz eta anima lotuta zegoen; bere lehen euskal idatzitxo apal haien arabera; nabari da, maitasunak non kokatuak dauzkan *Paz en la guerra* idazterakoan, ageri baita, kritikoek dioten bezala, erdaraz idazterakoan euskal estrukturarekin dituen borrokak.

Paisaia, Euskal Herrikoa da. Egia da, gero Gaztelako lautada sentituko duen bezala dela. Ez zaio ardurarik, biak dira egiazkoak.

Baina oraindik, Bilbo eta Bizkaia, gehiago dira. Eta hauek Euskal Herrian daude. Orokorki hartuta, eta amaitzeko: bere herria den Euskal Herria historian zehar bezala. Unamuno bere agoniako borroka bizian arituko zen gero, orain 50 urte emeki-emeki euskal loak hartua zegoelarik hainbeste larritzen zuen, baina oraindik espero ez zuen heriotzak bere bisita isil hura egin zion arte.